



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/09

## **Aldundiak Uri Hondakinen Kudeaketa Planeko helburu "gehienak" beteten ditu**

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralaren (BHHKPI) 2005-2016 hirugarren eta azken barrikuspenaren emaitzak azaldu ditu gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Bertan ikusi daitezenez, Estaduak eta EAEk arlo horretan markau dituen 13 helburuetatik lurraldeak 10 bete ditu. Holan, bat baino ez da bete barik geratu, petrolio gordinaren zero isurketarena –aurretik tratamendurik jaso ez daben hondakinen isurketea– hondakindegietara. Beste bi, aparatu elektrikoei eta elektronikoei eta beirazko edukiontziei, paperari, metalei, plastikoei eta egurrari jagokezanak, “modu partzialean” bete dira, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak azaldu dauenez.

Zehatzago esanda, Bizkaiak 527 uri hondakin kilo sortu ditu biztanle eta urte bakotzeko, 2001ean sortutako kopuru berbera, Garapen Iraunkorrerako 2002-2020 Ingurumen Estrategian jasoten denez. Estrategia horretan bertan, hondakindegietara eroaten diran hondakinen ehunekoak 2010an %30era arte murriztea ezarten zan. Gure lurraldean, ehuneko hori %19,1ekoa izan da 2016an.

Bizkaiak bete egin dau pilen, baterien eta akumuladoreen hondakinei jagokenez Estaduak arautu dauena. Bertan ezarten zanez, 2020rako birziklapen tasea %50ekoa izan beharko litzateke, eta 2016an Bizkaian ehuneko hori %80,6koa izan da. Eta bete egin da, baita be, 2016rako, 1995ean hondakindegietara eroaten ziran balioak %25 murrizteko helburua ezarten eban hondakin biodegradagarrien inguruko Estadu mailako araua. Bizkaian, azkenengo murrizketa hori 130.768 tonakoa zan, aurreko urtean lortutako kopurua, 45.625 tonakoa, baino askoz altuagoa. Estaduak %60an ezarri dauen “balorizazio” tasea gainditzea be lortu da (Bizkaian, sortzen diran uri hondakinen %80,9a aprobetxetan da).

Bizkaiko lurraldeak modu partzialean bete ditu Estaduko arautegiak markautako beste helburu batzuk: ez da osorik bete aparatu elektrikoaren eta elektronikoaren batuketa selektiboa 4,6 kiloraino handitzearena, biztanle eta urte bakotzeko 3,36 kilo bakarrik batzen diralako; eta ez da birziklapen tasaren %60ra heldu beirari eta paperari eta kartoiari jagokenez, %59an eta %54an geratu diralako, hurrenez hurren. Halanda be, metalezko, plastikozko eta egurrezko edukiontzien birziklapenak alde handiz gainditu ditu markautako helburuak.

Markautako erronken artean bete barik geratu dan bakarra petrolio gordinaren zero isurketarena izan da, BHHKPIk berak ezarritakoa. 2004. urtetik hondakindegien erabilera pixkanaka murriztuz joan dan arren –urte haretan sortutako hondakinen %53,8 bertara eroaten zan–, 2016ko %19,1era helduz, arlo horretan oraindino hobera egin behar dogu. Gainera, gogorazko behar da azkenengo urtean eragina izan dauela Tratamendu Mekaniko Biologikoko plantan, TMBn, egin dan grebak.

### **PLANAREN HELBURUAK ETA II. BHHKPI-AREN LUZAPENA**

Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralaren barrikuspenaren alderdi garrantzitsuenetakoa, dokumentu horretan jasotako helburuak betetearen azterketa da. Holan,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

azpimarratu behar da prebentzinoaren eta barriro erabilteko prestaketaren arloan, pertsona eta egun bakotxeko sorkuntzari 1,13 kilotan eustea lortu dala (hori da, hain zuzen be, 2016an sortu zan kopurua), merkataritza arloko hondakinek 220.000 tona ez gainditzea (igaz 130.018 tona izan ziran) eta uriko hondakinen sorkuntza 697.000 tonatik gorakoa ez izatea (2016an 605.232 tonatan geratu da). Gainera, uriko hondakinen birziklapenaren helburua be gainditu da. BHHKPIk %40an ezarri dau, eta igaz %43,78ra heldu zan.

Baina, konpostatzeari jagokonez, ez gara heldu Europatik markautako %4ko tasara, tasa hori %1,1ekoa dalako. Hori dala eta, neurri gehiago eta jarduketa osagarriak prestauko dira, gitxienez ehuneko horretara heldu ahal izateko. Holan, “urtea bukatu aurretik”, Aldundiak “plan pilotu” gat gura dau martxan jarri Lea Artibain, daborduko pretauta dagozan okela eta arrain hondakinak jasoteko eta, holan, edukiontzi marroira doan hondakinen kopurua handitzeko.

Egindako azterketatik ikusi daiteke Bizkaian aurrera eroaten ari dan hondakinen kudeaketa politikea bat datorrela Europako jarraibideakaz, “hobekuntzarako tartea” egon badagon arren. Eta European aldaketak aurreikusten diranez, Aldundiak II. BHHKPIaren indarraldia 2020. urtera luzatzea proponidu dau. Luzapen horren helburua, 2030era arte jarraibide barri horreek markauko dituen erronkakaz bat etorriko dan plangintzea egin ahal izatea da.

#### GAZTELUGATXERA EGIN DIRAN BISITEN DATUAK

Talde Mistoak eskatu dauen beste agerraldi batean, Gaztelugatxeko Donienek udan jaso dauen bisitarien kopurua eskini dau Elena Unzuetak. Babestutako biotopoak, 73.451 bisitari jaso ditu garagarrilean; 143.219 abuztuan eta 61.871 joan dan irailean. Bisitarien %73,02k baseleizaraino igo eban.

Unzuetak adierazo dauenez, pertsonen joan-etorri horrek ez dau ezelango “bisitari pilaketarik” eragin, baina “arazoak sortu ditu trafikoan”. Dana dala, pertsonen eta ibilgailuen mobimenduak ez dau ezelango eraginik izan biotopon eta inguruko faunan eta landaredian. “Babestutako inguruneak ez dau ezelango kalterik jasan”, azpimarratu dau.

Une honetan, kanpoko enpresa baten bitartez, Aldundia inguru horretarako plan integrala dabil prestetan. Plan horrek etorkizunean gauzatu beharreko jarduketak ezarri beharko ditu, “Tronu dema” serieko agertoki izan dan Bizkaiko kostaldeko puntu hori babesteko. Halanda be, azkenaldian martxan jarri diran hobekuntzarako hainbat ekintza gogorarazo ditu Unzuetak, informazio bulego bat instaletea; komun publikoak eta garbiketua hobetzea; jarlekuak eta atsedenerako gunek egokitzea; eta ingurumena errespetetan daben materialakaz bideak mugatzea.

#### ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUA

Gizarte Ekintzako batzordean, Isabel Sánchez Robles diputatuak agerraldia egin dau Batzar Nagusien aurrean, Talde Popularrak eskatuta, arreta goiztiarreko zerbitzuan (0 eta 6 urte arteko umeei emoten jakena) sartu behar diran aldaketen barri emoteko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren moldaketea dala eta.

Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, urtea bukatu orduko martxan jarri gura dan zerbitzuak “berme gehiago” eskiniko deutsez adinbakoei eta euren familiei. Aldundiak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

kontzertazio prozesua bukatuko dau, aurretik Administrazio berak “baimendu” dituan zentroakaz.

Formula barriak “sinplifikau” egingo deutsez tramiteak familiei, martxan jarten danetik kasu bakotxaren inguruko informazioa arinagoa izango dalako zentroen eta Administrazioaren artean. Arretea, orain arte emon dan “berbera” izango da, baina senideek zentroa “modu librean aukeratu” ahal izango dabe.

Gainera, familiek ez dabe dirurik aurreratu behar izango. Teknikariek tratamenduak agindu ostean, ordainketak zuzenean egingo deusaz Aldundiak zentroari, eta ez orain arte moduan, familiek terapia ordaintzen eben, eta gero fakturak aurkeztu behar ebezan, ordaindutakoa jaso ahal izateko.

Hornidura ekonomikoari jagokonez, Sánchez Roblesek adierazo dau aurrekontua “handitu ahal izango dala”, beharrak kontuan izanda. “Inor ez da geratuko agindu jakon arreta barik”, adierazo dau.

Sánchez Roblesek gogorarazo dauenez, zerbitzu horregaz Bizkaia “erreferente” bilakatuko da Estatu osorako, orain arte ez dagolako arreta goiztiarraren arloan hain urrun heldu dan beste lurralderik, 2012an Gizarte Ekintzako sailak, Eusko Jaurlaritzako osasun eta hezkuntza zerbitzuakaz lankidetzan lehenengo pausuak emon ebazanetik.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
09/10/2017

## **La Diputación cumple "la mayoría" de los objetivos del plan de gestión de residuos urbanos**

La Diputación Foral de Bizkaia ha dado a conocer hoy en las Juntas Generales de Bizkaia los resultados de la tercera y última revisión del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia (PIGRUB) 2005-2016, de la que se desprende que el territorio ha cumplido 10 de los 13 objetivos marcados por el Estado y la CAV en esta materia. De hecho, sólo se ha dejado de cumplir uno de ellos, el de vertido crudo cero -vertido de residuos sin un tratamiento previo- a vertederos, y otros dos más, los referidos a los aparatos eléctricos y electrónicos y a los envases de vidrio, papel, metales, plásticos y madera, se han cumplido "parcialmente", según ha explicado la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta.

En concreto, Bizkaia ha generado 527 kilos de residuo urbano por habitante y año, los mismos que los generados en el año 2001, tal y como se dispone en la Estrategia Ambiental de Desarrollo Sostenible 2002-2020. En esta misma estrategia se establecía la reducción del porcentaje de residuos que se llevan a vertedero hasta el 30% en 2020, cuando en nuestro territorio ese porcentaje es del 19,1% en el año 2016.

Bizkaia ha cumplido lo regulado por el Estado en relación a los residuos de pilas, baterías y acumuladores, que establecía una tasa de reciclaje del 50% para el año 2020 y que en Bizkaia supone ya en 2016 un 80,6%. Y se ha cumplido también la norma estatal de residuos biodegradables que fijaba el objetivo de reducir el depósito en vertedero al 25% de los valores de 1995 para el año 2016. En Bizkaia, esa última reducción se marcaba en 130.768 toneladas, muy por encima de la cifra real alcanzada el año pasado, que fue de 45.625 toneladas. También se ha logrado superar la tasa de "valorización" establecida por el Estado en un 60% (en Bizkaia se aprovecha el 80,9% de los residuos urbanos que se generan).

El territorio vizcaíno ha cumplido parcialmente otros objetivos marcados por la normativa estatal: no se ha llegado a cumplir del todo el de aumentar la recogida selectiva de aparatos eléctricos y electrónicos hasta 4,6 kilos, ya que son 3,36 los kilos por habitante y año; y no se ha llegado al 60% de tasa de reciclaje en las fracciones de vidrio, y papel y cartón, que se han quedado en el 59% y el 54%, respectivamente. Sin embargo, el reciclaje de los envases metálicos, plásticos y de madera ha superado los objetivos marcados.

El único de los retos marcados que no se ha cumplido ha sido el de vertido crudo cero, establecido en el propio PIGRUB. A pesar de que la utilización del vertedero se ha ido reduciendo progresivamente desde el año 2004 -cuando se destinaba el 53,8% de los residuos generados- hasta quedarse en el 19,1% en 2016, aún hay que mejorar en este aspecto, que el último año se ha visto condicionado, además, por la huelga mantenida en la planta de tratamiento mecánico biológico, TMB.

**OBJETIVOS DEL PLAN Y PRÓRROGA DEL II PIGRUB**



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Uno de los aspectos fundamentales de la revisión del II Plan Integral de Gestión de Residuos es el análisis del cumplimiento de los objetivos recogidos en este documento. En ese sentido, cabe destacar que en materia de prevención y preparación para reutilización se ha conseguido que la generación per cápita se mantuviera en 1,13 kilos por habitante y día (ésta es exactamente la cantidad que se generó en 2016), que los residuos comerciales no superaran las 220.000 toneladas (el año pasado fueron 130.018 toneladas) y que la generación de residuos urbanos no superara las 697.000 toneladas (se ha quedado en 605.232 toneladas en 2016). También se ha superado el objetivo de reciclaje de residuos urbanos, fijado en el PIGRUB en una tasa del 40%, y que ha sido del 43,78% el pasado año.

Por contra, no se ha llegado a la tasa del 4% en compostaje marcada desde Europa, que se sitúa en el 1,1%, de manera que se dispondrán nuevas medidas y actuaciones complementarias para tratar de alcanzar, al menos, ese porcentaje. En este sentido, “antes de finalizar el año”, la Diputación quiere poner en marcha un "plan piloto" en Lea Artibai para incluir los desechos de carne y pescado cocinados y así poder incrementar los residuos que van al contenedor marrón.

Del análisis realizado se extrae que la política de gestión de residuos en Bizkaia se encuentra alineada con las directrices europeas, aunque "hay margen de mejora". Y, dado que se prevén modificaciones en Europa, la Diputación ha propuesto prorrogar la vigencia del II PIGRUB hasta el año 2020. El objetivo de esta prórroga es el de poder realizar una planificación acorde a los retos que marcarán hasta el año 2030 esas nuevas directrices.

#### DATOS DE VISITAS A GAZTELUGATXE

En otra comparecencia, solicitada por el grupo Mixto, Elena Unzueta ha ofrecido los datos de visitantes estivales en San Juan de Gaztelugatxe. El biotopo protegido ha recibido 73.451 visitantes en julio, 143.219 en agosto y 61.871 durante el pasado mes de septiembre. El 73,02% de los visitantes subieron hasta la ermita.

Este tráfán de personas no ha supuesto, según Unzueta, una “avalancha” de visitantes aunque sí ha ocasionado “problemas con el tráfico” sin que el movimiento de personas y vehículos haya afectado al biotopo ni a la fauna y flora de la zona. “No ha habido deterioro en el entorno protegido”, ha asegurado.

La Diputación prepara ahora, a través de una empresa externa, un plan integral para este espacio que deberá establecer futuras actuaciones para proteger este punto del litoral vizcaíno, escenario de la serie "Juego de tronos". Aún así, Unzueta ha recordado las acciones de mejora que se han ido implantando últimamente como la instalación de una oficina de información; el reforzamiento de los aseos públicos y la limpieza; la instalación de bancos y zonas descanso; y la delimitación de caminos con materiales respetuosos con el medio ambiente.

#### SERVICIO DE ATENCIÓN TEMPRANA

En la comisión de Acción Social, la diputada Isabel Sánchez Robles, ha comparecido en Juntas Generales para informar, a petición del grupo Popular, de las modificaciones que se van a introducir en el servicio de atención temprana (en menores de 0 a 6 años), como consencuencia



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

de la adecuación del Decreto 13/2016, de 2 de febrero, de intervención integral en Atención Temprana en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La responsable foral ha señalado que el servicio que se espera poner en marcha antes de que acabe el año, ofrecerá “mayores garantías” a menores y familias. La Diputación culminará un proceso de concertación con centros que previamente hayan sido “autorizados” por la propia Administración.

La nueva fórmula “simplificará” los trámites a las familias, ya que, a partir de su puesta en marcha, la información de cada caso fluirá entre centros y Administración. La atención será “igual” a la que se viene dando hasta ahora, aunque los familiares tendrán la capacidad de “libre elección” del centro.

Además, las familias no tendrán que adelantar dinero. Una vez que los técnicos prescriban los tratamientos, los pagos serán abonados directamente por la Diputación al centro y no como ahora que las familias pagaban la terapia y, posteriormente, tenían que presentar las facturas para que se les devolviese el importe.

En cuanto a la dotación económica, Sánchez Robles ha asegurado que el presupuesto será “ampliable” en función de las necesidades. “Nadie se quedará sin atención prescrita”, ha dicho.

Con este servicio, Sánchez Robles, ha recordado que Bizkaia se convierte en “un referente” para todo el Estado, ya que ningún territorio ha logrado llegar tan lejos en materia de atención temprana desde que el área de Acción Social inició los primeros pasos en el año 2012, en coordinación con los servicios de salud y educación del Gobierno vasco.